

## Mendi Tour-eko filmak ikusi ahal izango dira Igorren

Mendia gai daukien sei film dira guztira eta hilaren 21ean eta 28an, bakotxean hiru film, ikusi ahal izango dira 19:30ean, Igorreko Lasarte Aretoan. Euren artean, Janire Etxaberen *Haize Ierroak* dago eta hau lehenengo saioan ikusi ahal izango da. 21eko beste filmak, Davina Montaz-Rosseten *Always Alive* eta Jerome Tanonen *Of A Lifetime* dira; eta 28koak, Darcy Hennessey-ren *Jamie*, Alfonso Garciaen *Una mirada atrás. El arte de equipar* eta Maxime Moulin-en *Andrea, An Unpaved Route* dira. **14. orrialdea**



## Areatzan egingo dan Danspirenaikarako prest

Hasita dago *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa, Danspirenaikarako motorrak berotuteko asmoagaz.

**A**urten Danspirenaika Areatzan izango da apirilaren 4, 5 eta 6an. Girotuteko, Arratian zehar, *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa emoten hasi da Aiko ekimenaren antolatzailea. Danspirenaika, Akitania barriak, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak osotuten daberen Euroeskualdeak lagundutako proiektua da, eremu honeetako ondare koreografikoaren gainean hausnartzeko eta partekatzeke. **8. eta 9. orrialdeak**



## Deiene Gurtubai Aratusteetako Argazki Lehiaketako irabazle



### LEMOA

## Arratiako Gazte Egun Feminista Lemoan ospatuko da

Arratiako feminista gazteek, martiaren 22rako, Ganbara Feminista, Arratiako Gazte Egun Feminista antolatu dabe Lemoako Karabie Gaztetxean. Berbaldiak, bertso bazkaria, Haginke transmaribollo taldearen aurkezpena, drag tailerra eta kontzertuak egongo dira, besteak beste. **7. orrialdea**

### ARRATIA

## Bildurraren kulturearen kontra, Arratiako sare antierrazistea

Hainbat herri eragilek eta norbanakok Arratiako sare antierrazistea sortu dabe, errazismoari eta xenofobiari aurre egiteko. Martiaren 21ean, arratiarrak deitu ditue 19:00etan, Igorreko Kultur Etxetik urtengo dan manifestazi- noan parte hartzera. **7. orrialdea**

### ZEANURI

## Ordezko medikua lortu dabe Zeanurín

Martiaren 17an, familia-medikuaren plazea bete da. Mediku titularrak lekualdatzea eskatu eban eta ia hilebete baten, ordezkko mediku barik egon dira Zeanurín. Bediako medikuak 75 urtetik gorakoak atendidu ditu Zeanurín bertan; 65 eta 75 urte bitartekoak Dimara joan behar izan dira eta gainontzekoak Igorreko osasun-zentroan artatu ditue.

Mediku barik geratu ziranetik Udalak eta herritarrek, hainbat ekimen egin ditue herrian medikua izateko. Herritarren konpromisoa, Igorreko osasun-zentroko planifikazioa eta medikuen esfortzua ipini dauz balioan Zeanuriko alkateak. Aldi berean, ordezkko egongo dala ESItik zuzenean jakin ez izana be salatuten dau. **5. orrialdea**

**EKIN**  
LAN PUBLIKOAK  
UR ETA SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57  
ekin@ekinsl.eus  
Igorre (Bizkaia)

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO  
GARAPENEAN LAGUNTZEN



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXIV). Kale berbakunea sustatu guran

#### KARLISTADAK (I)

-Aupa hi!  
-Zer **diñok** ba aspaldiko? Ze liburu **dozak** horreek ba?  
-Historiako liburuak gizona.  
-Euskal Herriko historia ikastea beti be gustau izan **jatak** niri!  
-Ba **bitik**, Santa Kurutz apaiza eta Zumalakarregiren gainean **bajak** zer jakin!  
-**Konteik!**  
-Lehenengo gudu karlistek zagaitino hasi **zoazen** azalduko **doat**.  
-XIX. mendean...

## ERETXIA

### Bildurraren kulturearen aurrean Arratia antierrazistea

#### ARRATIEKO SARE ANTIARRAZISTA

**A**zken aste eta hileetan oso kezagarriak diran gertaerak emon dira gure bailaran. Margoketa faxista eta errazistak agertu dira. Kutsu errazista nabariko kontzentrazioak deitu dira. Presentzia poliziala eta kamarak ipintea proposatu dau Lemoako Udalak, eta Igorreko Udala norabide bardinean kokatuten da. Honen aurrean, alkartasuna adierazo gura deutsegu errazakeria honen jomugan dagozan persona guztiei.

Pobrezia eta segregazioak ekarritako problematika batzuk, errazakeria, gorrotoa eta politika punitibistikaz "konponduteko" erabaki oker eta ankerra hartu da. Herritarrok ondo dakigu benetako konponbideak bestelako bideetatik datozela. Persona guztion segurtasunen kontrako mehatxua prekarizetan gaituan sistema ekonomiko batetik, eta baztertzaila eta segregatzailea dan sistema politiko batetik dator, eta ezelan be ez, historikoki diskriminatuak izan diran kolektiboen partetik. Ardurabakokeria ikaragarria da kolektibo errazializauak jopuntuan ipini, erruduntzat hartu, eta instituzinoen arpegia garbitutea.

Egoera honek erantzunak behar dauz. Arratiar guztiok seguru bizi gaitez, eta bildur eta gorroto gehiago zabaldu ez daiten erabakiak hartu behar dira. Hau holan, Arratieko Sare Antiarrazistak hurrungoa heldu arazo gura deutse Arratiako herritar, alkarte eta instituzinoei:

- Kaleratzeak, kontrol soziala eta jazarpen poliziala ez da aterabidea. Bildurraren kultura ez elikatutea danon ardurea da. Politika punitibistikaz amaitu behar dogu.

- Pobrezia eta segregazioa gaintututeko bitartekoak ipini behar dira. Herritar guztiontzako

oinarrizko bizi-baldintza duinak bermatuta egon behar dira.

- Politika inklusibo eta ez baztertzaila martxan ipintea lehentasunezkoa da. Kulturartekotasuna bultzatu eta jarrera errazistak gorroto delituak dirala azpimarratu.

Neurri eta aldarrikapen honeek urgentziakoak dira, eta justizia sozialaren begiradatik aplikatu behar doguz. Aldi berean, urgentziakoak da olatu faxistea eta errazistea gelditutea. Harrera herri izateak gorroto diskursoak amaitutea exijiduten dau. Arratia inklusiboa, antierrazistea, feministea eta antifaxistea gura dogu, eta kaleak hartuko doguz jarrera eta politika erreazionarioak geldituten goazela erakusteko.

Hamarnaka eragile eta ehundaka herritarren inizatibaz, martiaren 21ean, Errazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, Igorreko kaleak beteko doguz. Kultur Etxean batuko gara, arrastiko 19:00etan, "Bildurren kulturaren aurrean Arratie Antiarrazista" bat aldarrikatuteko.



## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIAUrtaro  
aldaketea

**K**onturatu orduko, martian gagoz. Hileon, atzean itxiko dogu negua eta ondoetorria emongo deusagu udabarriari. Denporea gurean eta beste leku batzuetan be esan dabilen arren, oindino be esan geinke ez dala guztiz lausotu noz pasetan garan urtaro batetik bestera. Badagoz seinale garbi batzuk. Egunak luzeagoak dira, argitsuagoak. Baso-zelaiak berde dagoz bazterretan; landak lorez beteta daukaguz.

Egutegiari jagokonez, neguan hasten dogu urte barria; ilbaltzaren lehenengo eguna negu gorria da. Horren ostean datoz udabarria, udea, udagoiena eta negua barriro. Holan ziklo oso bat itxi arte. Urte hasikereak ia-ia bat egiten dau neguko urtaroaren hasikereagaz, eta hurrenkeran kronologikoan negua urteko lehenengo urtaroa dala pentsetan dogu.

Halanda ze, egutegiagaz lo-

tutako segida horrez aparte badago beste segida bat be, edo beste batzuk, edo beste asko. Hain zuzen be, bakotxaren barruak marketan dau urte edo ziklo aldaketea noz dan beretzat. Urtearen hasikerea guztiontzat ez dator bat ilbaltzaren lehenengo egunagaz. Batzuentzat urtea data konkretu baten hasten da, eta beste batzuentzat beste baten.

Lagun bat eta biok hemengo eta hango kontuak kontetan ibili ginan aurreko egunean. Danagaitik zeresana euki genduan, baita urtaro aldaketeagaitik be. Bai berak eta bai nik galdu genduan hur-hurreko persona bat martian; bata hil hasikeran, eta besteak amaieran. Marti baltz baten, hosto barik geratu ginan, loreak zimelduta eta barruak siku. Martia behar izaten dogu barruak garbitu eta azala barriztuteko. Beraz, biontzat urte barria martiaren ostean hasten da, aprilean.

Hori dala-ta, urte barri on guztioi. Udabarriagaz batera loratuko gara laguna eta biok. Azal barria dotore erakutsiko dogu. Eta besteok aurtengo urtean esperientzia daukazuenez honezkero, esango deuskuzue zegaz ibili behar dogun kontuz eta nondik tiratu behar dogun.

## ZERTZEAN

MARTINA LARRAZA  
AZPIAZU

## Arratsaldeko paseoa

**N**iregana hurbiltzen da, irten nahi duen bakoitzean jartzen duen gizajo-aurpegi horrekin, eta badakit bere arratsaldeko paseorako unea iritsi dela.

Pff... nekatuta nago eta ez dut berriro ateratzeko gogo handirik... Baina, tira, ulertzen dut berak behar duela, bestela egun osoa emango luke hemen sartuta, eguzkia ikusi gabe, airea sentitu gabe. Banoa korrearen bila eta ateratzean konturatzen naiz kakak jasotzeko poltsak ahazten ari zaizkiola. Zaunk-zaunk batez abisatzen saiatzen naiz, baina ez dit ulertzen. Zein tentelak diren gizaki hauek! Behar bezala zaunka egiten jakingo balute!

\* Arratiako Berbalagunek antolatutako III. Mikroipuin Txapelketako bigarren saria lortu eban ipuina.

\* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**E**z diesela, ez elektrikoa, pentsuz dabil ibilgailu jasangarri arratiar hau. Priscila dauka izena eta bere jaubea Zeanuriko Ibargutxiko Kepa da, Areatzako pelukerua. Asto-otzarak daroaz aldean, bihar Zeanurira jasteko prest erosketak egiten. Baina, horreek otzarak xistruak daukie izena, Iparraldeko tradizionokoak dira-ta.

**Alvaro Rabelli**



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

**BEER & EDARIAK**

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • [beerredoriak@gmail.com](mailto:beerredoriak@gmail.com)

**agoa**  
hagin klinikak

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikasgata Zerbitzuak 901  
R.P.S. 31/06

ZEANURI

## Zeanuriko familia medikuaren plazea bete da hilaren 17an

### Erredakzioa

Herritarrei esker lortu dabela medikua uste dau Nahia Urrutuak Zeanuriko alkateak. Izan be, herritarren inplikazioa handia izan da kexak sartzean, herrian arazoa bisibilizetan eta Udalarri lagunduten emon beharreko pausu guztietan, ordeko medikua ipinteko. Igorreko ambulategiko zuzendaritzeagaz be agertu da eskertuta alkatea, mediku barik egon diran bitartean, Zeanuriko pazientek atendiduteko egindako planifikazio eta esfortzuagaitik.

Zeanuriko familia medikuaren plaza bakarria beteten dauan mediku titularraren lekualdatzea zalata, Osakidetza ordezkorik bialdu ez ebanen hasi zan egoera hau. "Zezeilaren 11n jaso genduan Igorreko ambulategiko zuzendaritzatik dei bat esanez, gugaz bildu gura ebela Zeanuriko medikuaren egoerea azaltzeko. Han egon ginan eta azaldu euskuen herriko medikuak, alde egingo ebala, beste lanpostu batera joala, baina bere plaza hemen mantendutuen ebala eta mediku barik gelditzen ginala" azaldu deutso BEGITURI Nahia Urrutua Zeanuriko alkateak.

Hurrengo 15 egunetan, hainbat mediku pasau ziran Zeanuritik. Baina ikusita, ez egoala jakiterik noz beteko zan lanpostua ordeko bategaz, eta pazienteei ez jakiela komenidu joaten diran bakotxean mediku bat izatea, planifikazio bat

egin zan. Holan, aste biz, 75 urte- tik gorako personak edo patologia larriak dituenak, gitxi gorabehera 150 paziente, Zeanuriko osasun zentroan atendidu ditu Bediako familia medikuak. Bestalde, 65 eta 75 urte bitarteko biztanleak, eta kontrol patologiak dituenak, Dimako ambulatoriora joan behar izan dira. "Guk hori ez genduan egoki ikusten ez daukagulako garraio zuzenik Zeanuri eta Dimaren artean; hau da, joan behar diralako Igorrera, Igorren itxaron, beste autobus bat hartu...". Gainerakoak, 600 paziente inguru, Igorren artatu ditue.

### Herritarren eta Udalaren burrukea

Planifikazioa eta inplikautako mediku eta osasun zentroen esfortzua eskertu arren, egoera ezin zala normalizau eretxia eta egoerearen barri emoteko, herri bilera deitu eban Udalak. "Eskertu behar doguz herritarrak 100 personatik gora hurbildu ziralako bilera horretara. Han, dinamika bat planteau genduan. Hasteko norbanako kexa

indibidualak sartzea; eta herritarrak oso fin ibili dira horretan, bakotxak bere kexa sartzean; bisualizau be egin dogu herrian arazoa: pankartak egin eta udal eraikinetan ipini doguz... Bilera horretan be konprometidu ginan beste ate bat jotera eta Legebiltzarrean agerraldi bat eskatu genduan, alkatearena, geurre egoera azaltzeko".

Horrezaz gainera, Galdakaoko ESiko zuzendaritzeagaz bilera eskatu eben Udal ordezkariak eta han esan eutseen plaza hori ez zala desagertuko.

Martiaren 10ean, ordeko bat egongo zan albiste ona jaso eban Zeanurik. Igorreko ambulategitik jaso ebela deia azaldu dau alkateak. "Salatu gura dogu ez dogula ESitik jaso albistea, ez idatziz ez telefonoz, eta Udalarri heldu arazo baino arinago, hedabideetan zabaldu zala. Uste dot pausu hori ez ebela ondo emon, ze uste dogu eskubidea daukagula jakiteko aurretik herritarrei informatako hedabideetan zabaldu baino arinago".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Errigora kanpaina martxan da, Nafarroako nekazal produktuak erosteko

### Erredakzioa

Martiaren 26ra arte egin daitezke Nafarroa hegoaldeko oliba orio birjina edota konserben eskaerak, euskeraz etiketata eta jatorrizko ekoizleen prezioan Euskal Herrian ekoiztutako produktuak erosteko. Eskariak webgunean edo herrietan dagozan taldeen bitartez egin daitezke. April-maiatza aldera, bannanduko dira eskariak herrietan.

Errigora, Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituan ekimen herritarra da eta auzolana da euren lan-tresna nagusia, ehunka lagun borondatezko lanari esker. "Betiko lan kolektiboa balioan ipintea be badauka

helburu Errigorak" webgunean azaltzen daben lez. "Egunetik egunera gero eta zabalagoa dan komunitate batek emoten deutso gorputza ekimenari; ilusinoz eta anbizinoz dihardugun herritar, nekazari, ekoizle, euskalzale eta konsumitzaileez osotutako sare ugari batek".

BEGITUK otzara bi zozketatuko ditu bere Begitu-lagunen artean. Saskiak danetariko produktuz osotutako dagoz: konserbak, pastea, arroza, ardaoa, orioa... guztira 10 produktu otzara bakotxean. Lehenak ekoizpen konbenzionaleko produktuak biltzean ditu, bigarreneko produktu guztiak modu ekologikoan produzidutakoak dira.

### Elikadura burujabetzea eta euskerea

Udabarriko kanpainak eguneroko konsumo ohituretan eragiteko jaio ziran, Nafarroa hegoaldeko produktuak, Euskal Herrian kokatu eta elikadura sistemearen ebatziak ekoizle eta konsumitzaileen esku izateko pausuak emoteko.

Euskereari be bultzadea emon gura deutso ekimenak eta euskerari presentzia emoten deutso, produktuen etiketetan.

### Orioa, konserbak, lekaleak...

Errigoraren arabera, urtean, batez beste personako 12-15 litro orio, 4-5 kilo pasta, 6 kilo inguru lekale eta 10-15 ontzi tomate prijidu gastetan dira. Orioa 5 litroko ontzietan saltzean da eta hainbat bariedade dagoz: pikual, enpelte, arbekina... Zainzuriak, orburuak, tomateak, piperrak, barazkiak edo lekaleak eta arroza be erosi daitezke.

ARANTZAZU

## Zimintterek jatekoa prestatzeko tailer zikloa eskainiko dau Arantzazun

Hiru tailer izango dira: lehenengoa martiaren 27an; bigarrena, maiatzaren 8an eta hirugarrena, 29an, Arantzazuko Kultur Gunean, 17:30etik 20:30era.

### Erredakzioa

Zikloari amaierara emoteko "mokadu jan kolektiboa" egingo dabe andra partaideek Fikan, hango proiektu agroekologiko baten barri jakin bitartean.

Elikadura burujabetzea eta sukaldaritzaren ikuspegi feministea batzean dira tailer honetan. Andren arteko alkargune eta jakituriak konpartidutako lekua izan gura dauan ziklo honeri *Emakumeak elkar elikatzen* izena ipini deusie Zimintterekoek. Lehenengo tailerrean, *Haziera* izenekoan, andrak belaunaldiz belaunaldi transmitidutako jatekoen gaineko jakiturea landuko dabe. "Gure hasikerea da, aurreko belaunaldiei begirada bat bota eta horreei garrantzia emon gura deutsegu" azaldu deutso BEGITURI Izaskun Urbaneta Zimintterekoak.

Bigarren tailerrean, *Beharretik plazerrera* izenekoan, andren beharra, espazio pribadu eta askatasun faltearen ikur izan dan andrak eta sukaldearen arteko lotureari, beste esangura bat eta beste irakurketa bat egingo deutsee plazerretik eta feminismotik abiatuta. "Zentzumenetan oinarritu-

tako saio gastronomikoa izango da. Beharretik plazerrera saltu egingo dogu, modu kolektiboan, eta elikagaien garrantzia landuko dogu".

*Lokala globala da, sukaldeak batzen duena* da hirugarren tailerren izena. Elikadura globalak eta elikatze eritmo aldaketak, lurragazko eta jatekoakazko loturea zelan ahaldu dauan landuko dabe. Munduko sukaldaritzak kultura ezetuteko aukerea egongo da eta presentzia izango dau tailer honetan.

Olatuko Laboreak, andra nekazari baten proiektu agroekologikoa bisitauko dabe ikastarokoek Fikan, *Mokadu jan kolektiboa* eginez zikloari amaierara emoteko.

### Izen-emotea

Izena emoteko *ziminttere@gmail.com* helbidera idatzi behar da. Plaza mugatuak dagoz eta Arratian 12 izan daitezke gehienez partaideak.

Baina Arratian bakarrik ez, Getxon eta Bilbon be emongo dabe lurra eta elikagaien gaineko zikloa "elikagaien jakiturea sukaldatu eta era kolektiboan indartzeko espazioa sortzeako".



## ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Udalerri euskaldunetako gazteek izena emon daikie Salto! Udalekuetarako

### Erredakzioa

Martiaren 31ra arte emon daiteke izena Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) antolatutuen dauzan Salto! gazteentzako udalekuetan parte hartzeako.

Txanda bi dagoz: bagilearen 22tik 30era eta garagarriaren 2tik 10era. Aurten be ibiltaria izango da ekimena, eta Baliarraindik Idiazabalerako bidea egingo dabe gazteek, Tolosaldean hasi eta Goierriin zehar.

Aurten, 2007 eta 2010 urteen artean jaiotako gazteek izango dabe udalekuetan parte hartzeako aukerea eta txanda bakoitzean 60 lagunentzako lekua dago.

Euskerearen inguruan herritarrak konzienietako eta sensibilizetako ekimenak dira UEMAren ildo nagusietako bat atzen urteotan. Horren barruan, euskerearen arnaguneei

eta udalerri euskaldunei buruzko Hedatu hezkuntza proiektua abian dauka UEMAK, eta ikastetxeetan be lanean dabiz UEMAKo teknikariak, Haur Hezkuntzako, LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasleak, irakasleak eta gurasoak. Udalerri euskaldunak eta arnaguneak giltzarriak dirala nabarmentzea da proiektuaren helburua, gazteei euskerearen normalizazio prozesuan daukien garrantzia ikusi arazoteaz gainera. Proiektua oindino gehiago garatzeko, hezkuntza arautuaren mugak gainditu eta udalerri euskaldunetako gazteentzako topaketak eta udalekuak antolatutuen ditu UEMAK.

### Izen-emotea

Udalekuek 175 euroko prezioa daukie eta izena emoteko [labor.us/salto2025izena](https://labor.us/salto2025izena) helbidean galdetegia bete behar da.



## IGORRE

## Caritas Bizkaiaren Nire ahotsa ere baliotsua argazki erakusketea Igorren

### Erredakzioa

Martiaren 17tik 22rako astean, Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan, *Nire ahotsa ere baliotsua* argazki erakusketea egongo da. Erakusketa ibiltaria da eta Bizkaiko hainbat tokitan egon da Igorren egon aurretik.

Erakusketea osotuten dabezan

hamar irudi horreen bitartez, zailtasunak zailtasun, aurrera egin daben hainbat personaren bizitzak erakusten dira, superazio historiak, hain zuzen be. Erakusketeak gogora ekarri gura dau "danok daukagula entzutea merezidu dauan historia bat", eta holan, enpatia eta solidaridadea bultzatu.



## IGORRE

## Goitibehera tailerra egingo da San Kristobalen

### Erredakzioa

Intxaurbizkar Kultur Elkartek 2024ko San Kristobaletan 1. Goitibehera Jatsiera antolatu eban. Ikusita parte-hartzaileen zein ikusleen aldetik erantzun ona euki ebala, aurtengo egitarauan be ekintza horrerri lekua emongo deutsie.

"San Kristobalak urruntxo egon arren, baina hurreratzat doazela, 'motorrak' berotuten hasteko eta, era berean, ohitura zaharrak gogora ekarteko asmoagaz goitibeherak egiten ikasteko tailer bi aurreikusten doguz. Lehenengo

egin eta gero probetako helburuagaz" dinoe antolatzaileek.

Lehenengoa, martiaren 22an, umeentzat, izango da eta bigarrena, gazte eta helduentzat, bagilaren 21ean burutuko da. Bata zein bestea, arrastiko 15:30ean hasita, San Kristobaleko ermitako portikuan egingo dira.

San Kristobaleko II. Goitibera Jatsiera garagarriaren 12an izango dala adierazo dabe. "Aurtengoan betidanik ezetu doguzan goitibeherakaz, gura dauanak parte hartzeako aukerea eukiko dau. Beti be, babes neurri guztiak hartuta".



## AREATZA

## Areata 1338 SL soziedade publikoak etxebizitza bi ipini ditu salgai

### Erredakzioa

Goikokale 14-16, 1D eta 2H dira salgai dagozan etxebizitzak, 160.283,91 euroko prezioan eta 170.415,67 euroko prezioan hurrengo hurrengo.

Etxebizitza bi horreetako bat erosi ahal izateko adinez nagusia izan behar da, etxebizitza premia izan, urteko 15.000 eta 54.250 bitarteko diru sarreara haztatuak izan eta esleututako

etxebizitza izan behar da erosiaren edo bizikidetzatza-unidadearen bizilekua.

Areatan errolatutako pertsonak izango dabe esleipenerako lehentasuna eta bizikidetzatza-unidadeko kideek ezin izango dabe etxebizitzarik euki jaubetzan, jaubetza soilean, azalera-eskubidean edo gozamen-eskubidean, eskaera egindako datan.

Baldintza guztiak [areata.net](https://areata.net) webgunean topau ahal dira.



## AREATZA

## Areatazako Aldamin tabernea alokairuan hartzeako pleguak eskuragarri dagoz

### Erredakzioa

Areatazako Udalak urte baterako kontratu luzagarria eskaintzen dau ugerlekuetako tabernea kudeatu gura dauanarentzako.

Udala, ugerlekuetako Aldamin tabernea nork kudeatu topetan dabil eta eskuragarri ipini ditu kontratazinorako pleguak <https://labor.us/Aldamin2025> helbidean. Udarako bakarrik ez, urte baterako kontratua eskaintzen da, beste urte bat luzatu daitekena. Hileroko errentearen gitxieneko eskaintzea 250 eurokoa izango da; argindar, ur, gas, berogailu eta bestelako gastuak kenduta. Martiaren 31ra arte aurkeztu daiteke dokumentazioa eta zehaztasun guztiak topau daitezke goiko estekan edo udallexean bertan.

Tabernea kudeatuteko interesa daben persona edo entidadeek proiektuaren gaineko memoria bat aurkeztu beharko dabe eta horretan oinarrituko da Udala, lizitazinorako. Bertan puntuauko dira lokalean egin gura diran barriztapenak, eskainiko diran zerbitzuak, profesionalen ezaguerriak eta esperientzia, besteak beste.



LEMOA

## Arratiako feminista gazteek topaketea egingo dabe Lemoan

Martiaren 22rako, Ganbara Feminista, Arratiako Gazte Egun Feminista antolatu dabe Karabie Gaztetxean.

### Erredakzioa

Goizean, hainbat berbalderen bitartez, formakuntza feministan sakonduko dabe partaideek. Zaplast, Orratzak eta Kiñu Gaztetxeako partaideek Arratian, batez be jaietan erabili diran erasoaren kontrako protokoloen balorazioa eta lortutakoaren eta hutsuneen gaineko hausnarketea egingo dabe. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren erronkak eta prozesuak be hartuko ditue berbagai mobimentuko gazteek. Eguerdian, bertso bazkaria egongo da Maider Altuna eta Enara Gallastegi bertsolariakaz. Arrastian, Haginke transmaribollo talde bariaren aurkezpena eta drag tailerra egongo da eta iluntzean, herrian zehar ibiliko dira ginkana musikatuz. Egunari amaiera Karabie Gaztetxean emongo deusie Sara Zozaya eta Las Sexpeares-en kontzertuakaz. Ostein DJ Agata Lagata animauko dau gaua.

### Martiak 22, zapatua

10:30ean, harrerea.

11:00etan, berbaldiak: *Erasoen kontrako protokoloak. Garaipenak eta hutsuneak.* Hizlariak: Zaplasteko Eider Lopez eta Lur Iturrioz, Orratzak-etik Maddi Gorostiaga eta Nagore Leon eta Kiñu Gaztetxetik Amaier Irazabal.

*Eskuin muturren gorakada eta politika antifeministak.* Hizlaria: Maialen Arteaga.

12:30ean, mokadutxo.

13:00etan, berbaldia *Euskal Herriko Mugimendu Feminista. Erronka eta prozesuak.* Hizlariak: Euskal Herriko Gazte Feministak taldeko kideak.

15:00etan, bertso bazkaria. Bertsolariak: Maider Altuna eta Enara Gallastegi. Bazkarirako txartelak Karabie Gaztetxean, Areatzako Hagina taberna eta Igorreko Axular Herriko Taberna. 8 euro.

17:00etan, Haginken aurkezpena eta drag tailerra.

19:00etan, ginkana musikatua Gaztetxetik herrira.

22:00etan, kontzertuak: Sara Zozaya, Las Sexpeares eta DJ Agata Lagata Karabie Gaztetxean.

**GANBARA FEMINISTA**  
Arratiako Gazte Egun Feminista  
Martxoak 22 · Karabie Gaztetxean

10.30 HARRERA

11.00 HITZALDIEK  
Erasoen kontrako protokoloak, Garaipenak eta hutsuneak, Zaplast, Eider Lopez eta Lur Iturrioz, Orratzak, Maddi Gorostiaga eta Nagore Leon, Kiñu Gaztetxea, Amaier Irazabal.

Eskuin muturren gorakada eta politika antifeministak, Maialen Arteaga

12.30 PIKOTEOA

13.00 HITZALDIEK  
Euskal Herriko Mugimendu Feminista, Erronka eta prozesuak, Euskal Herriko Gazte Feministak

15.00 BERTSO BAZKARIE  
Maider Altuna, Enara Gallastegi, Txartelak B C Karabie, Hagina eta Axularren.

17.00 HAGINKEN AURKEZPENA eta drag tailerra

19.00 GINKANA MUSIKATUE  
Gaztetxetik herrira

22.00 KONTZERTUAK  
SARA ZOZAYA, LAS SEXPEARES, DJ AGATA LA GATA

MESHA ETA TRANSMARIBOLLOKANTZAK

ARRATIA

## Arratieko Sare Antiarrazista aurkeztu dabe olatu faxistea eta errazistea geldituteko

Arratiako hainbat herri eragile eta norbanakok, Arratieko Sare Antiarrazista sortu eta jente-aurrean aurkeztu eben martiaren 11n Lemoan. Hilaren 21ean Igorren egingo dan manifestazinora joateko deia be egin eben.



### Erredakzioa

Sareak herritar guztiak seguru sentidu daitezcan, justizia sozialean oinarritutako urgentziatzko neurriak aldarrikatzen dauz; hau da, herritar guztientzat bizitza baldintza duinak bermatutea edo politika inklusiboak eta ez baztertzailak martxan ipintea, beste neurri batzuen artean, olatu faxistea eta errazistea geldituteko. Hori dala-ta, Errazismoa eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunerako, martiak 21, Igorren manifestazinorako deialdia zabaldu dabe. Manifestazinorako hainbat alkarte eta eragileren atximentua jasoten dabiz.

Egoera kezkarri batek ipini eban kontaktuan hainbat herri eragile. Izan be, aspaldion, Arratian, margoketa faxista eta errazistak agertu dira kaleetan, eta kutsu errazistako kontzentrazioak be deitu dira segurtasuna eskatuz. Segurtasunaren izenean, Lemoako Udalak presentzia polizia handitzea eta kamarak ipintea ebatzi dau, eta Igorreko Udala be bide beretik doala salatu dabe sare antiarrazistakoe.

Eta ez da hori Arratie Antiarrazista Sareak proponiduten dauana herritarrek seguru sentiduteko; justizia sozialean oinarritutako neurriak baino. "Pobreziak eta segregazioak ekarritako proble-

matika batzuk, errazakeria, gorrotoa eta politika punitibistakaz konponduteko erabaki oker eta ankerra hartu da. Herritarrok ondo dakigu benetako konponbideak bestelako bideetatik datozela: persona guztiak prekarizetan gaituan sistema ekonomiko batetik, eta baztertzaila eta segregatzailea dan sistema politiko batetik datoz; eta ezelan be ez historikoki diskriminatu egiten diran kolektiboen partetik. Ardurabakokeria ikaragarria da kolektibo errazializaduak jopuntuan ipini, erruduntzat hartu eta instituzinoen arpegia garbitutea" azaldu eben aurkezpenean.

### Martiaren 21ean manifestazinoa Igorren

Bildurren kulturearen aurrean Arratia antiarrazista bat aldarrikatuteko eta "olatu faxistea eta errazistea" geldituteko, arratiarrak mobilizazinoetara deitu ditu Sare Antiarrazistak eta martiaren 21ean, 19:00etan, manifestazinoa abiatuko da Igorreko Kultur Etxetik.

Arratieko Sare Antiarrazistak, manifestazinoaren ostean be ekin jarraituko dau, eragileetako ordezkariak zein norbanakoak saretu eta injustizia honeri aterabi-deak topetako.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

## Euskaraldian ahobizi edo belarriprest moduan izena emoteko txandea

### Erredakzioa

Herrien eta entidadeen izen-emotearen ostean, norbanakoen txandea zabaldu da martian. Euskaraldiak iraun bitartean, ahobiziek lehenengo berbea beti euskeraz egiteko eta belarriprestek erderaz erantzun arren, euskereari eusteko konpromisoa hartzean dabe izena emoterakoan.

Euskaraldia, euskerearen erabilerea handitzea eta hizkuntza ohiturak aldatzea helburu daukan 11 eguneko ariketa soziala, maiatzaren 15etik 25era izango da aurten. Izan be, Euskaraldiak, euskerea ulertuten daben guztiakaz euskeraz egitea proponiduten dau, euskerea gehiago,

gehiagotan eta jente gehiagokaz erabilteko.

### Txapak

Ahobizi edo belarriprest txapek adierazoko deusie aurrean dagoanari, zein dan txapadunak hartu dauan konpromisoa. Hau da, ahobizi txapea daroenek lehen-

go berbea beti euskeraz egiteko konpromisoa eta besteak ulertuten badau, euskeraz jarraituteko.

Belarriprest txapea daroenek, barriz, beti ez dabe euskeraz egingo ulertuten daben guztiakaz, baina euskerea dakienek berari euskeraz egitea gura dauala adierazoten dabe txapeagaz.



## DANSPIRENAIKA ARRATIAN

# Sabin Bikandi: "Arratia tradizinozko jantzearen uriburu mundiala bihurtuko dogu"

Aprilaren 4, 5 eta 6an, Aikok antolatutako Danspirenaika, jantza astegoiena, izango da Areatzan. Akitania barria, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoak osotzen daben Euroeskualdeak lagundutako proiektua da eta aurtengoa laugarren edizioa da. Aurreko edizioak, Echon (Aragoi), Izaban (Nafarroa Garaia) eta Oztibarren (Nafarroa Beherea) izan ziran. Martiko domeketan, *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa emoten dabil Aiko, motorrak berotzeko.

Sabin Bikandi Aikokoagaz egin dau berba BEGITUK.

## Erredakzioa

**Aurten Danspirenaika, aprilaren 4tik 6ra jantza astegoiena izango da Areatzan. Baina Areatza ez da Pirinioetako herri bat.**

Akitania barria, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoak osotzen daben Euroeskualdeak lagundutako proiektu baten laguntzeari esker dator Danspirenaika Arratiara. Europako Ekonomia Erkidegoaren ikuspuntutik, Pirinioetako eremua geuk pentsetan doguna baino zabalagoa da. Pirinioak ez dira bakarrik 2.000 metrotik gorako mendi tontorrak, inguruko herrialdeak be Pirinioak dira. Eta kulturearen ikuspuntutik, gauza bardina. Pirinioetako eremu kulturalak Euskal Herri osoa hartzean dau, Nafarroa Erriberaraino eta Aragoi eta Katalunia guztia.

Danspirenaika Pirinioetan zehar martxan dagoan ekimena da. Hasikerako proiektua (inoz egiteko esperantzea ez dogu galdu) Cap de Creusen jantzan hasi eta Hondarribiaraino mendi kate guztia zeharkatzea zan. Herri batzuetan gelditu jantzan ikasi eta irakasteko, eta erromeriak egin horko eta hemengo musikari eta jantzariakaz. Asmoa ederra da eta egiteko gogoak ez jakuz falta, baina... errealidadeak dino, hori egiteko denpora dezentea behar dala... denporea eta dirua. Horregaitik Pirinioetako eremua zatika zeharkatzen gabiz. Atxakia polita da inguruetako lagunak alkar ezetu eta gure amankomuneko jantza kulturea partekatzeke. Holan, 2024an esate baterako, Huescan egon ginan; PIR festibalagaz batera egin genduan emonaldia garagarrean, gero Erronkariko Izaban urri lehenengoan, San Migeletan, eta urri bigarrean Oztibarren. EAEn egin behar genduan eta Areatzara etorri ginan, sarritan egon garalako, Areatzako Hotela aterpe egokia dalako kanpotik datozen lagunentzat, Gorbeia inguruan agozalako, eta Gorbeia



"gure mendia" dalako, eta, eskolaren parean Areatzak daukan gela barria jantza eskolak emoteko aparteko lekua dalako.

Aprilaren 4-5-6an Arratia tradizinozko jantzearen uriburu mundiala bihurtuko dogu guztion artean Danspirenaikaren izenpean. Danon artean egiten dogun mirarixoa da hori, alkartuta, alkarregaz jo eta jantzan. Musikoak bakarrik jote bagengoz jantzari barik plaza... agur Ben-Hur!

**Zenbat jentek hartu eban parte aurreko edizioetan eta zenbat jentek parte hartzea espero dozue aurtengoa?**

Jentearen parte-hartzeagaz pozozik gagoz. Echon eta Izaban 100 lagunek baino gehiagok emon eben izena. Oztibarren dezente gitxiago, baina ondo etorri jakun bertoko errealidadea ezetuteko eta lagun barriak egiteko. Kontutan hartu, esate baterako Zuberoa guztian 20.000 lagun baino gitxiago bizi dirala. Arratiako ekimenera ikusteko gagoz zenbat jente datorren.

Guk gogo eta ilusino handiagaz prestatu dogu egitaraua. Aprileko

Areatzako astegoienaren aurretik be, Danspirenaika barruan, motorrak berotzeko, eta jantzarako zaletasuna partekatzeke, martiko domeketan *Arratiako jotea danontzat* ikastaroa antolatu dogu, arrastiko 6retan. Hilaren 9an Igozren, 16an Diman, 23an Zeanurin eta 30ean Areatzan. Lagun mordo batek izena emon dau, eta gogoz gagoz Arratiko jotea deitzean dan horri buruz gure esperientzia luze eta zabala partekatzeke.

**Aurreko edizioetan zelan joan zan? Ze balorazino egiten dozue?**

Danspirenaika aukera ederra da gure ondare koreografikoa partekatzeke, gure berba bako hizkuntzea erabilteko eta zentzun bat emoteko. Gaur egungo gizarte banakozale honetan (sarritan esaten dogu, gure umetaroan, auzokoak etxeok ziran. Zenbat bider jagon doguz auzoko seinak, eta zenbat laguntzino eta mesede egin alkarrerri! Gaur aldiz, sarritan, ez dogu auzokoen izenik be jakin gura badaezpadan) gure tradizinozko kulturearen inguruan sozializaziorako lekuak sortzea behar

dogu eta Danspirenaikak hori lortzean dau. Eta horren bidez be, zeozertxo ikastea, esate baterako, leku guztietan txakurrak ortozik doazala, eta pentsetan doguna baino antza handiagoga daukagula gauza askotan beste paraje batzuetako lagunakaz.

**Areatzan ikasiko diran jantzen jatorria Pirinioetako izango da? Esan gura dot, ez bakarrik euskal jantzak, Aragoiok eta be bai, ezta? Zer daukie komunean Pirinioan zeharreko jantza herritarrek?**

Kulturako adierazpenen jatorrien inguruan berba asko egin da, eta oindino be, batzuk horri bueltaka dabiz. Kulturea orokorrean, eta jantzea eta musikea batez be, sasipekoak dira: ez dago jantza bat be "garbi" "lerden" eta "purua". Batzuek mitifiketan daben geure "euskereak" be hainbat aldaketa eta gorabehera izan ditu historian zehar. Eta jantzen kasuen, askoz be gehiago. Pirinioetako herrieke jantza kontuetan badaukaguz amankomuneko ezaugarri batzuk, eta bat, esate baterako, jotea da. Kuriosoa da, jota bat jota bat da

## "Danspirenaika

aukera ederra da gure

ondare koreografikoa

partekatzeke, gure

berba bako hizkuntzea

erabilteko eta zentzun

bat emoteko"



lako, hemen eta lekutako puntan. Baina, beste kontu askogaz pase-tan dan moduan, bakotzak berea dala pentsetan dau, eta ez inore-na gehiago. Igual hori da Danspi-reinaikaren meritueta bat, geure zilari begira egon beharrean baka-riik, ingurueta zer dagoan ikaste-ko aukera emoten dauala.

### **Jantzan egiteaz gainera, jantzen inguruko berbaldiak be egongo dira eta jatekoak be izango dau bere garrantzia. Menuan be egongo da presente Danspirenaika?**

Berbaldiak, bere horretan, ez doguz eukiko. Berba bai egingo dogu eta asko, berbea inportantea dalako gure ondarearen transmisioan. Berba asko egingo dogu, eta ez bakarrik eskola eta tailerretan. Sarritan, eskarmentu interesgarriena klasetik kanpo sortzean da, lagun arteko berbaldietan, tabernan, erromerian, mahai inguruan... Eta mahai ingurua inportantea dana lez, zapatuan, apirilaren 5ean, bazkari herrikoa antolatu dogu. Hori bai, geure jantzen antzera Km0 izango da, gure ingurukoa. *Slow Food* móbimentukoak be lagun doguz, eta sarritan esaten dogu, geure proposamena be *Slow Dance* dala. Kanpotik datozenentzat, geure inguruan modan ipini dan "gilda" bategaz hasiko gara, gero, geure etxeetan ohikoa zan patatak makailoagaz, segiduan, gure baserrietan gosea kentzean eban txarriken sahieskiak erreta, Pirinioetako beste puntan dagoan Provenzako saltseagaz, postre-rako Pantxineta klasiko bat, eta edateko sagardoa. Bertoko janak, bertoko jantzak egiteko.

### **Jantza-poteoa eta erromeria be ez dira faltauko.**

Hainbat jantzaldi eta jantzan egiteko eremu eta aukera eukiko doguz Danspirenaikan. Aitatutako martiko domeka arrastietan jotea dala-ta Igorren, Diman, Zeanurin eta Areatzan. Eta astegoienera bagoaz, lehenengo egunean, barikuan, 4an, afaldu eta gero, 22:30 inguruan, Mazurka Klandestino gure lagun handia dan Roberto Etxebarriaren farreagaz. Mazurka klandestino European modan ipini dan terminoa da, ilundutakoan, ilunean egiten diran jantzaldietarako, sarritan formatu txikian, akustikoan, soinu ekipo barik, ezkutuan... Eta geuk be, geure jantza astegoinetan, konturatu ginan, sarritan, momenturik gozoena izaten zala afalondoko jantzaldia, edozelan eginda be, eskusoinu bategaz, tanbolinagaz... edo telefonoan irratia ipinita be! Kar, kar, kar! Kontua da alkarregaz jantzan egitea. Eta horregaitik Mazurka Klandestino ipini deusagu beti egin dogun afalondoko jantzalditxo horri. Zapatuan, 5ean, be, afalondan Aiko taldeko mu-

sikoakaz Mazurka Klandestino egingo dogu.

Jantza-poteoak be egingo doguz, zapatuan eta domekan. Zapatuan, goizeko eskolak amaituta, 13:00etan hasi eta bazkai-lordurarte Jarauta 69 eta Bizkaiko Gaiteroakaz ekingo deusagu kalean, tragutxo bat hartu, kantau eta jantzau 15:00ak inguruan mahai jesarri arte. Kale inguruan musikea eta jantzea traguren bat hartzeako aukereagaz, hori da guretzat Dantzapoteoa. Domekan be, bardin, 13:00etan Aiko Taldea eukiko dogu bazkaldu aurretik Bermut Dantzaldia egiten, edo Dantzapoteoa.

Bazkalondan, Jarauta 69 eta Bizkaiko Gaiteroakaz batera, Aikoko musikari bat konbidau dogu alkarregaz joteko eta kantetako: Argi Zameza etorriko jaku, Izaban egin genduan Danspirenaikan ezetu genduan kantari makuesa (Elantxobekoa). Danak alkarregaz bazkalondoko giroa gozutuko dogu eta kantau eta jantzau, iluntzean, Areatzako Bandearen erromeriako ordura arte. Bandearen erromerian Arratiako Arantzarte, Etxanderak eta Gangorri taldeetako jantzariek be parte hartuko dabe, baina ez ikusgarri moduan, ikuskizunen eran, jantzari jantzazale moduan baino, inguruan dagozan herritar-rak jantzara animau eta lagunduteko baino.

Eta aitatu dogunez, zapatuan be, afaldu eta gero, Mazurka Klandestino.

### **Alkarrizketa hau egiten gogozanean, egun gitxi falta dira Arratiako jotea danontzat ikastarorako. Ze harrera euki**

### **dau?**

Oindino zabalik dago izen-emotea, eta ez dogu plaza kopuru mugarik ipini eremu zabaletan egingo dogulako ikastaroa, baina jente mordoak izena emon dau. Galdakaotik, Durangotik eta Bilbotik be kuadrillea etorriko ei da. Hori bai, aprobetxau daigun argit-zeko ikastaro bakarra dala, ikastaro bat lau egunetan. Holan ba, ikastaroa jarraitu gura dauanak, printzipioz, Igorrera, Dimara, Zeanurira eta Areatzara etorri beharko dauala. Arratia ezetuteko modu bat jantzan. Kar, kar, kar!

### **Izen handia dauka Arratiako joteak, baina zer dauka berezi? Aurreko urteetan be emon da ikastaro hori Dans-**

### **pirenaikagaz lotuta?**

Oin berrogeta hamar urte inguru, inok ez ebanean balorean ipinten, Galdakaoko Andra Mari taldeak, eta batez be, berton jantza maisu handia izan dan Kepa Artetxek, gure inguruko jantza soltua eiteko modua batuten, ikertzen, ikasten eta irakasten hasi zan. Horretan aurrendari izan ziran eta begiak zabaldu euskuezan etxe inguruan geunkan altxorra balioan ipinita. Galdakoztar asko Arratiara begira bizi izan gara, eta Andra Mariaren kasuan eta Kepa Artetxerenean be holan izan da. Ikerketa haretan, datu bilketa zabalena Arratia inguruan egin zan (gure familiak, lagunak, eta abar Arratiakoak ziralako) eta batutako jantzakera

hori oholta gainera ikuskizun moduan eroan zanean, ba, zer izen ipiniko? eta ba... Arratiako jotea. Orduan ez genkian jantzakera hori ez zala Arratiako bakarrik, eta beste inguru askotan be jantza soltuan, "trikitian" holan egiten zala. Eta holan, Andra Mariaren lan eder horri eskerrak, Arratiako jotea zabaldu eta hedatu zan gure inguruan. Eta Aikoren jotarako zaletasuna be hortik dator, eta holan, be *Jotamentala* dokumentala ekoiztu genduan Bideografik produktorako lagunakaz. Eta holan jarraitu dogu ikasten eta ikertzen, jotea jantza sistema baten moduan aztertu eta irakasten. Hori partekatzen saiatuko gara martiko lau domeketan be.



Arratiako jotea danontzat ikastaroko lehen saioa Igorren.

## **Egitaraua eta izen-emotea**

### **Aprilak 4, barikua**

Areatzako herriko eskoletan.

16:30ean, ondo etorria.

17:00etatik 18:30era, *Mutildantzak denontzat* (Aiko).

18:30etik 20:00etara, *La jota de Tafalla* (Aiko).

Afaltzeko tartea.

22:30ean, Mazurka Klandestino Roberto Etxebarriagaz.

### **Aprilak 5, zapatua**

Areatzako herriko eskoletan.

10:00etatik 11:30era, *Jauziekin jolasten* (Aiko).

11:30etik 13:00etara, *La jota de Echo* (Silvia Marín Bráviz, Patricia López Miguel).

13:00etatik 15:00etara, Dantzapoteoa Jarauta 69 Fanfarrea eta Bizkaiko Gaiteroakaz, kalez kale jantzan eta kantuan, Gudarien plazan hasita.

15:00etan, Km0 bazkari herrikoa udaletxeko arkupetan, Gudarien Plazan (eguraldiaren arabera pelotalekuan). Prezioa 26 euro *online*, 25 euro Areatzako tabernetan. Menua: ondoetorri gilda, patatak makailoagaz, txarri saiheskia txingarretan errea Probenzako saltseagaz, pantxinetea, ogia, ura, kupeleko sagardoa eta kafea. Aukera beganoa dago. Bazkalondan, kantaldi-jantzaldia: Argi Zameza, Jarauta 69 Fanfarrea, Bizkaiko Gaiteroak eta Aikogaz.

19:00etan, erromeria Areatzako Udal Bandeagaz.

Afaltzeko tartea.

22:30ean, Mazurka Klandestino Aikogaz.

### **Aprilak 6, domeka**

10:00etatik 11:30era, *Fórmulas rítmicas para bailar mejor* (Luis Miguel Bajen, Aragoi).

11:30etik 13:00etara, *Jotak nahieran/Jotas a la carta* (Aiko).

13:00etan, Dantzapote/erromeria Aikogaz herriko plazan edo eskoletako aterpean euria balitz.

### **Izen-emotea**

Plaza mugatuak dira eta parte hartzeako matrikulea 50 eurokoa da. 18 eta 30 urte bitarteko gazteek debalde izango dabe matrikulea. Parte hartzeako helbide honetan izena emon eta ordaindu behar da: <https://aikoeskola.eus/ekitaldi-egutegia/>.

Areatza Bainuetxeak egonaldi berezi bat eskaintzen dau jantza astegoienean izena emoten dabentzat. Logela bikotxa gosariakaz, afariakaz, 6ko bazkariagaz eta zirkuitu termalagaz 294,82 euro BEZ barne (147,41 euro lagun bakotzeko). Gela hirukotzak zein banakakoak, erabilgarritasunaren arabera mugatuak dagoz, eta horreetan izena emoteko 634 423 539 telefonora deitu behar da. Gela hirukotxa (bikotxa banakako ohe-sofa bategaz) 416,54 euro (138,84/3 lagun bakotzeko). Banakako gela 209,40 euro.

Ostatuan izena emoteko eta gela hartzeko esteka honetan egin behar da: <https://aikoeskola.eus/ekitaldi-egutegia/>.

Azken eguna hoteleko eskaintza honetan izena emoteko: martiak 31.

## AREATZA MUSIK &amp; BEER

# Hamar taldek joko dabe Areatza Musik & Beer jaialdian

*Maiatzaren 30ean eta 31n izango da aurtengo Areatza Musik & Beer nazinoarteko musika eta garagardao jaialdia.*

## Erredakzioa

Martiaren 13an emon ebezan jakitera Areatzako nazinoarteko musika eta garagardao jaialdiko antolatzaileek aurtengoan maiatzean joko daberen talde guztiak. Askotariko musika baina batez be rock & roll, blues eta soul musika egiten daberen 10 taldek joko dabe. Garagardaoari jagokonean, Basque Beer izango da aurtengo babeslea, igaz be izan ziran jaialdian laguntzaile eta Euskal Herriko garagardao artisauak ekarriko dabez. Oin artean lez, aurten be Hernaniko Basqueland Brewing-ek ekoiztutako garagardaoak dastatzeko aukerea egongo da, besteak beste. Gainera, gastronomiak bere programazio propioa eukiko dau jaialdian.

Gune nagusi bi izango ditu jaialdiak: Gudarien plazea eta Kallartean, Zubizarra inguruan. Gudarien plazan eszenaleku nagusia egongo da eta bertan izango dira arrastietako kontzertuak. Karpa handia egongo da plazan. Kallartean gunean barriz, zapatu goiz eta eguerdiko musika kontzertuak eta jatekoa eta azokatxo berezi bat be egongo dira.

## Lehen mailako nazinoarteko musika taldeak

Arnau & The Honky Tonk Losers (Katalunia-Euskal Herria). Igorren bizi dan Arnau Coderch buru dauan talde honek, country/



Little Odetta talde frantziarra.

americana estiloko musika egiten dau.

Amann & The Wayward Sons (Euskal Herria). Bilboko banda honek, blues, soul eta rock 'n' roll-a nahasten dituan musika egiten dau.

Zalomon Grass (Galiza). Energia, emozinoz eta izerdiz betetako ikuskizuna agintzen dau banda honek. Euren estiloa cosmic blues lez definituten dabe bandakoek. Rock klasikoan oinarrituta, elementu progresibo eta psikodelikoak batzean ditu galiziarren soinuak.

Little Odetta (Frantzia). Taldeak 1960-1970 hamarkadetako rhythm & blues afroamerikarrean oinarritutako musika egiten dau. Audrey Luriek, taldeko liderrak, sortutako kantak dira, rock-a,

ran, ikuskizun eszeniko kementsu bategaz.

The Cinelli Brothers (Erresuma Batua). Erresuma Batuko Blues Band of the Year izan zan 2024an. Euren soinuak nahasten ditu soul eta blues estiloko musika gaur egungo ukitu bategaz eta The Beatles eta Stevie Wonder lango musikari mitikoen eraginagaz.

Datcha Mandala (Frantzia). Hi-

rukote honek definituten dau bere musika "rock psikodeliko eta heavy blues" moduan. 1970 hamarkadan inspirauta, gaur egungo heavy rock irakinaldia be badakarre.

Burning (Madrid) Espainiako musika talde ezagunak be joko dau Areatzan. 1974an sortuta, bere jatorrizko estiloa mantenduten dau: rock and roll klasikoa, rhythm and blues eta blues nahasten dituan.



Igaz 50 urte bete ebazan Madrileko Burning taldea.



**BESTE  
MODURA  
DENONA DA  
ONURA**

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak **jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta.**



**MARTXOAK  
10-26  
errigora.eus**

ARATUSTEETAKO ARGAZKI LEHIAKETEA

# Deiene Gurtubaik irabazi dau BEGITUREN Aratusteetako Argazki Lehiaketea

Lehenengo aldia izan da BEGITUK Aratusteetako Argazki Lehiaketea eratu dauana eta parte-hartzea handia izan ez dan arren, 21 argazki, balio izan dau erakusteko jai berezi honeen ikusgarritasuna. Arratiako Aratuste eredu bien testigantzea jasota geratu da lehiaketan; baita arratiarren sormena, ondo pasetako gogoia eta lurrari loturea be.



Artea. Argazkia: Haizea Quintas.



Ubide. Argazkia: Ane Ajuria.



Areatza. Argazkia: Felicia Caslatoi.

2025 MARTXOAK 7 · APIRILAK 11  
**Euskarazko film laburren XXII. zirkuitua**  
**MARTXOAK 22 · 20:00 · Lasarte Aretoa (IGORRE)**  
**PROSOPAGNOSIA** EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY · **PLAZER BAT** SONIA ESTEVEZ · **BETIKO GAUA** ENeko SAGARDOY · **EUROPA** EKAIN IRIGORIEN · **PENTSATZEN DUT** ALAIA MARTIN/KARMELE MITXELENA/IRAITZ MATEO · **HOR KONPON** JONE ARRIOLA · **GOODBAY KEPLER** NEREA AYALA · **UTLANDSK** ALBA LOZANO ·

Organizatzaileak: **TAUPA** Euzko Kulturaren Erakundeak, **TOKIKOM**, **Bizkaia**, **araba-álava**, **Ugandak**, **Ugandak**, **Ugandak**, **Ugandak**, **Ugandak**, **Ugandak**, **Ugandak**



# IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)



**ETXEBIZITZAK  
SALGAI**

**AREATZA  
1338**

**GOIKOKALEA 14-16, 1D ETA 2H**

**OINARRIAK**

**INFO+: AREATZAKO UDALETXEA,  
WEBGUNEA ETA IRAGARKI TAULA**



**begitu**  
**.eus**



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



**94 631 72 57**



**ekin@ekinsl.eus**



**Igorre (Bizkaia)**

## KIROLA

## Lemoak gazteentzako orientazinoko kirol jarduera zerbitzu barria ipini dau martxan

### Erredakzioa

Lemoako Udalak, 14 urtetik gorako gazteei zuzendutako jarduera fisikorako orientazio zerbitzu bat ipini dau martxan, ariketa fisikoa modu dibertigarrian eta gazteen interesetara egokitua sustatzeko helburuagaz. Zerbitzua debalde da eta Lemoan errolatuta dagozan gazteek baino ezin dabe parte hartu.

Parte hartzeako banakako hitzorduak, astelehenetan izango dira 16:30etik 18:30era, eta talde tailerrak, eguaztenetan 16:30etik 17:30era. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan aditua dan Andoni Castillok zuzentzen dau zerbitzua, eta parte-hartzaileei aholkularitza personalizaua emongo deutse. Jarduerak giro lasaian egingo dira, musikeagaz eta presino barik.

"Ekimen honen ezaugarri bereizgarri bat parte-hartze ikuspegi da: erronkak eta jarduera fisikoa egiteaz gainera, gazteek euren jarduerak proposatu ahal izango ditue, programea euren interes eta lehentasunetara ego-

kituz" azaldu dabe Udaletik.

### Hitzorduak

Interesdunek, 670 363 972 telefonoan edo [andoni.castillo@mugikon.com](mailto:andoni.castillo@mugikon.com) helbidean hartu daikiez hitzorduak. J.B. Eguzkitza Meabe ikastetxeko Gaztegunean be egin daitezke konsultak.



## KIROLA

## UEMAko herrietako entrenatzaileentzako kirol psikologia ikastaroa

### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaian Kirola Ere Euskaraz (BKEE) programearen barruan, Arratiako UEMAko herrietako entrenatzaileentzako kirol psikologia ikastaroa egongo da. Ikastaroa *online* da eta aurrez aurreko saio bi izango ditu. Saioa presentzialak Igorreko Kultur Etxean izango dira martiaren 27an eta apirilaren 2an 18:30etik aurrera. Ikastaroa egin ahal izateko izena martiaren 20ra arte emon daiteke <https://orein.eus/entrenatzaileentzat-psikologia-praktikoa/> estekan.

Ikastaroak kirol arloan euskeraren erabilera sustatzeko helburua dauka. "Entrenatzaileen formakuntzan behar bezala landu bako arloa da oindino kirol psikologia. Horregaitik, ume eta gaztetxoek entrenatzaileek kirol

psikologiaren oinarriko baliabide praktikoak eskuratzeko ikastaroa da honakoa" azaldu dabe UEMA-tik. Ikastaroa debalde da eta 10 orduko iraupena dauka.

UEMA (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) dagozan Arratiako herriak, Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanuri dira. Eurretan lan egiten daberen entrenatzaileei dago zuzenduta ikastaro hau.

### Aritz Olagoi Olazabal dinamizatzailea

Ikastaroa Aritz Olagoi Kirolean Euskaraz enpresako arduradunak dinamizauko dau. Psikologian lizentziatua da eta Ariketa Fisikoaren eta Kirolaren Psikologian Masterra dauka. Egunerokoa euskeraren erabilera eragiteko kirol eremuan hainbat egitasmotan parte hartzean dau koordinatzaile moduan.

## MENDIA

## Janire Etxaberen *Haize lerroak* eta mendia gai daukien beste bost film ikusgai Igorreko Lasarte Aretoan

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, aurten be igazko Bilboko Mendi Film Festival-eko pelikularik onenak ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan, martiaren 21 eta 28an, 19:30ean. Saio bakotxean hiru film egongo dira ikusgai.

Hilaren 21ean, *Haize lerroak*, *Always Alive* eta *Of A Lifetime* eta 28an, *Jamie*, *Una mirada atrás*, *El arte de equipar* eta *Andrea, An Unpaved Route*, hain zuzen be.

### Erredakzioa

Janire Etxaberen *Haize lerroak* lehenengo saioan egongo da ikusgai. Etxabe eskalatazailer, dokumentalgile eta jantzariak, hamahiru minutuko film honegaz, lau urtetan zehar Euskal Herriko mendi eta baso esanguratsuenetan egin dituan jantza lerroak dokumentetan ditu. "Amets batek, sentimentu batek aldatu leike paisaia? Jantza bertikala probau nebanetik, argi izan neban bide honetatik jarraitu gura nebala. Gure etxean, mendian, hegan, sokan zintzilik, sentimentu mugabako baten etenbako bilaketan". Euskeraz da filma, gaztelaniazko azpitituluakaz.

Hurrengo, Davina Montaz-Rosset frantziarraren *Always Alive* 35 minutuko filma izango da. Filmak Hillary Gerardiren historia dakar. Gerardi munduko trail lasterketa garrantzitsuenetan distira egiten dauan atletea da. Oin dala urte batzuk istripu izugarri bat izan eban, baina trail runningeko errekorrik entzutetsuena gaindizten saiatu zan: Mont Blancen errekorra, Chamonixeko elizatik abiatu, gailurra jo, eta barriro herrira itzuli. Hillaryren balentriak, aldi berean, Heidi Sevreste glaziologoaren diskursoagaz bat egiten dau glaziarren garrantziaz konzientzia sortzeako.

Lehenengo saioa osotuko dauan filma, Jerome Tanonek zuzendutako *Of A Lifetime* 44 minutuko pelikulea da. Filmak De Le Rue freerider familiak Antartikara egindako bidaia kontetan dau. Xavier, 7 aldiz munduko txapelduna; Victor anaia txikia, 3 aldiz munduko txapelduna; eta Mila alabea, 18 urte bete eta lehen espedizioari ekitekotan dana dira protagonistak. Esplorazioa, abentura eta belaunaldi aldaketea Antartikako leku ikusgarrian dakar filmak.

### Bigarren saioa hilaren 28an

Mendi Tour-eko beste hiru pelikula ikusi ahal izango dira hurrengo barikuan. Lehenengo filma 18 minutuko kanadiar filma da, Dar-

cy Hennesseyk zuzendutako *Jamie*, hain zuzen be. Jamie Logan 1970eko hamarkadako mendizale puntakoenetako bat izan zan, lehen igoera ugari egin ebazan Ipar Amerikako hainbat bide gogorretan. Logan alpinista eta arkitekto arrakastatsu, gogor eta kementsuak, 69 urteagaz andra izateko eraldaketea hasi eban, eta oin, 76 urteagaz, mezu hau heldu arazo gura deutse beste trans personei: bitzita ederra izan daitekela, norbere buruagaz errespetuz jokatu, zintzo izanez eta munduagaz konektatuago egonda.

Alfonso Garciaeren *Una mirada atrás. El arte de equipar* 29 minutuko filmak eskaladan ekipatzeko mundu ezezagunera hurreratzaren gaitu. Eskalatazailer %1ek baino ez dau bide barriak ekipatzen jarduten. Bitzita osoa

ekipatzen daren Euskal Herriko lau eskalatazailer Aritz Aparicio, Guillermo Bañales, Iñaki Marco eta Juan Manuel Hernández dira dokumentaleko protagonistak.

Amaitzeko, 42 minutuko pelikula frantziarra egongo da ikusgai; Maxime Moulin-ek zuzendutako *Andrea, An Unpaved Route*, hain zuzen be. Film honetan, Nina Caprez, eskaladaren ikonoa, muturreko kiroletako argazkilaria dan Jérémy Bernard bikoteki-deagaz, eta euren alaba Liagaz Marokora joango dira Andrea deituriko ibilgailuan. Proiektu oso personala daukie, eta bidean bertako kulturak eta hainbat eskalatazailer ezetuko ditue. Dana dala, bidaiek, eta bizitzaren ustebako jira-bueltek, euren poztasunak, kezak eta nortasun printza sakinak agirian itxiko dabez.

**IGORREKO KULTUR ETXEA - LASARTE ARETOA, Elevalde 8**  
SARRERA DOAN / ENTRADA GRATUITA  
Araldi 11 minutu beharago gaitzake da! Lasarte Aretoan 11 minutu arte.

Antolatzaile Organizatzaile: **bbk mendi film bilbao - bizkaita** | Babesleak Patroizabaitza: **GANZABAL MENDI TALDEA** | Laguntzaile Kolaboratzaile: **eitb** | **ZNEUSKADI**

[www.mendifilmfestival.com](http://www.mendifilmfestival.com)

## BOLA JOKOA

### Zeanuri irabazle Arratiako Komarkala Txapelketako lehen jardunaldian

#### Erredakzioa

Martiaren 8an jokatu zan Lemoako bolatokian txapelketako lehen tiraldia eta Zeanurik 539 puntu eskuratuta irabazi eban.

Aurreko urteetan Bizkaiko Bola Txapelketa Komarkalean parte hartzean eben talde arratiarrek baina aurtengoan, Zornotzakotik banandu eta Arratia mailan jokatu hasi dira txapelketea federauta dagozan sei taldek: Lemoa A, Bargondia; Lemoa Bk botaten

dauan arren, Elorriaga (Lemoa), Oba (Dima), San Kristobal (Igorre) eta Zeanuri. Txapelketea lau txakinetara jokatzen da.

**Lehen jardunaldia. Sailkapena**  
1-. Zeanuri: 539 puntu. 2-. Lemoa: 525 puntu. 3-. Elorriaga: 515 puntu. 4-. Oba: 486 puntu. 5-. San Kristobal: 440 puntu. 6-. Bargondia (Lemoa B): 431 puntu.  
Datorren tiraldia Artaunen izango da martiaren 22an, arrastiko 16:30ean.

## FUTBOLA

### Lemoako Harrobik ekintzak antolatu ditu Athletic Clubaren Euskal Non League Day ekimenagaz bat eginda

#### Erredakzioa

Martiaren 22an, egun osoan zehar, hainbat ekitaldi antolatu ditu Lemoako Harrobi Futbol Klubak; futbol partiduak, paella herrikoia eta Orkresta Elektrotxaragaz kalejirea tartean.

"Euskal Non League Day, Athletic Club-ek oinarritzko futbolaren alde egindako ekimena da, ordezkatzeko dituen klubek eta futbol hezitzaileek gizartean eta kirolean daukien garrantzia nabarmentzeko helburuagaz. Ekimen honek Athletic Club-en pertenezkoa zentzua islatzen dau, baita harrobiagaz eta

oinarritzko futbolagaz daukan lotura estua be" azaldu deutso BEGITURI Alazne Salcedo Lemoako Harrobi Futbol Klubeko presidentea.

Lemoako Harrobik bat egin dau ekimenagaz eta egun osoko egitaraua prestatu dau martiaren 22rako Arlonagusian. Egun horretan, San Mamesera joateko sarrera bi zozketatuko dira. Zozketarako txartelak tabernan edo klubeko bulegoan dagoz salgai. Sarrerea debarde izango da egun osoan zehar. "Harrobiren bereizgarriren bat daukien guztiek (kamiseteta, bufandeta...) egun horretan jantzita ekartea eskatzen dogu" dino Salcedok.



**EUSKAL NON LEAGUE DAY MAR 22**

**EGITARAUA**

- 9:00etatik aurrera partiduak
- Harrobi grafiti murala 11:00
- Aurpegi margoketa 11:30
- Trikitixa 12:00
- Paella herrikoia 13:00
- F7 taldeen aurkezpena 16:30
- Regional partidua, 17:00
- batoi jaurtiketa
- Orkresta Elektrotxaranga herritik zehar 19:00-22:00

**Egun honetan zatoz Harrobiz jantzita!!**

## PELOTEA

### Dimoztarrak nagusi Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan

#### Erredakzioa

Martiaren 8 eta 9aren artean, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzeak antolatutako 2025eko Euskal Herriko Ezker Paretako Kluben Arteko Txapelketako maila guztietako finalak jokatu ziran. Frontenis, zestapunta eta eskupeletako maila guztietako hamazazpi final egon ziran jokoan herri desbardenetan. Euren artean, eskupeletako Ohorezko Mailan, andrazko zein gizonzkoetan, dimoztarrak egon ziran eta hiru txapel eskuratu ebezan Amaia Aldaik, Aingeru Bernaolak eta Xabi Rekaldek.

Bernaola eta Rekaldek, Txumulueta klub dimoztarragaz jokatu eben Ohorezko Mailako finala Bergaran, Lea Ibarra klubeko Kepa Albizu eta Endika Uriondoren kon-

tra. Lea Ibarraok hasi ziran irabazten baina dimoztarrek erritmoa hartuta, partidu estua jokatu zan, dimoztarren alde 22-20 amaitu arte. Andrazkoen Ohorezko Mailako finala ostera Villabonan jokat-

tu zan. Lea Ibarra klubeko Amaia Aldai eta Enara Gaminde, Behar Zana klubeko Miren Larrarte eta Itxaso Erasunen kontra aritu ziran eta Aldai-Gaminde bikoteak eskuratu eban txapela, 22-16 irabazita.



## FUTBOLA

### Andrazkoen eta gizonzkoen Arratia Ak irabazi egin dabe atzen jardunaldian

#### Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak 5-1 eta gizonzkoenak 4-1 irabazi eben Urbietan. Gizonzkoen Arratia Bk 4-1 eta Lemoako Harrobik 2-0 galdu ebezan euren partiduak etxetik kanpo. Andrazkoen Arratia B taldeak osterata sedenaldia izan eban.



## XAKEA

### Salvador Lopez Rojasek irabazi dau Arratiako Xake Txapelketea

#### Erredakzioa

Arteko Herriko Bentak antolatutako Arratiako Xake Txapelketea, Salvador Lopez Rojasek irabazi eban. Txapelketan, 20 bat lagunek hartu eben parte giro ederrean. Irabazleak bertako produktuen otzara bat izan eban sarizat.

Eguraldiak lagundu eban hilaren 2an, txapelketa egunean, eta plazan jokatu ziran partidak, hiru ordu luzez. "Betiko lez, sano pozik gagoz ekintza honegaz, adin eta kultura desbardenetako jentek hartu ebalako parte eta partaidetzea aurrekoetan baino apurtxo bat urriagoa izan arren (berandu zabaldu zan), maila altuagoa izan zalako" azaldu deusie BEGITURI antolakuntzatik.



Salvador Lopez Rojas igorreztarra ezkerrean.

## ANTZERKIA

Zainketa aringarriak  
eta heriotza ona ardatz  
dauzan antzezlanak Igorren

## Erredakzioa

Martiaren 29an, 20:00etan, La Dramática Errante konpainiak *Adiorik ez antzezlanak* ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora. Maria Goiricelayaren zuzendaritzapean, Ane Pikaza, Aitor Boro-bia, Loli Astoreka, Patxo Telleria, Egoitz Sánchez eta Idoia Merodio aktoreek mugak gainditzeari, samurtasunari eta bihozberatasunari buruzko istorioa taulara-

tuko dabe.

Aita batek eta alaba batek Europa osoko ibilbide zaharrenean, Donejakue Bidean, egingo daben bidaia da. "Heriotzeari buruz hausnartzea proponiduten deuskuen istorioen kurutzaketa bat da. Mundu hau minez itxi eben persona guztiei aitortza egiten deutse eta bizitzaren azken etapa honetan laguntzen daben beste horreek guztiak besarkatzen ditu" sinopsiaren arabera.



## MUSIKEA

Go!azen telesaileko  
aktoreak Igorren izango  
dira hilaren 26an

## Erredakzioa

Martiaren 26an, eguaztena, arrastiko 17:30ean, Go!azen-eko Nerea Elizalde (Garazi) eta Ander Lacalle (Luken) aktoreen berbaldira musikala egongo da Arratiako Musika Eskoleak antolatuta, Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoran.

Elizalde eta Lacalle telesailean izandako esperientzia eta filmaketen anekdotak kontatuko dabez eta euren ibilbide personalaz egingo dabe berba.

Jarduera honetarako sarrerak behar dira eta sarrerok musika eskolari eskatu behar jakoz.

## Golazen

Golazen ETB1eko telesail musikala da. Fikzio honek udaleku zorrotz batean euskaldun gazte talde baten ibilerak ditu ardatz. 2008an sortu zan filma eta zinema aretoetan estreinau zan. Gero, hurrengo urtean EITBk emon eban.

Arrakastearen ondorioz, 2009an ETBk Go!azen 2.0 telesaila sortu eban, eta bertan pelikulako personaia gehienek hartu eben parte. 2016an telesaila berreskuratu eben eta Go!azen 3.0 telesaila sortu eben personaia barriakaz. Oin dala aste batzuk amaitu eben emitiduten 11. denporaldia.



## UDABARRIA LORAN

Pentsakerara begirako  
hiru jarduera Zeanurin  
Udabarría Loran  
ekimenaren barruan

## Erredakzioa

Martiaren bigarren hamabostaldirako hiru ekintza antolatu ditue Zeanurin, Udabarría Loran ekimenaren barruan: *Bittor Kapanaga izena eta izana*. Kontu-kantari ikuskizuna hilaren 21ean; *Emakume Abertzale Batza 100 urte* liburuaren aurkezpena eta berbaldira 27an eta *Mito ipuinak, zelan aitu, zelan zaindu* berbaldira hurrengo egunean, martiaren 28an.

Bittor Kapanaga (Otxandio, 1925; Gasteiz 2011) euskaltzalea eta idazlea izateaz gainera, pentsalaria izan zan. *Bittor Kapanaga izena eta izana*. Kontu-kantari ikuskizunean, Xabier Amurizak, Gontzal Mendibilek eta Joseba Sarrionandiak bere pentsamentua emongo dabe jakitera. "Bittor Kapanagaren teoriak puri-purian dagoz gaur egun. Bere izatea, pentsakerea, gogoetak, egitea... aztertuko dogu. Eta era berean, beragaz izandako hartu-emonak" azaldu deutso Begituri Gontzal Mendibilek. Kapanaga, azitia, druida, pentsalari-ikerlaria, profeta, aintzindaria eta *rara avis* deitu eben ezetu ebenek eta bere ekarpena euskal kulturara aztertuko dabe "kontu-kantari", Amurizak, Mendibilek eta Sarrionandiak, martiaren 21ean, 19:00etan, Zeanuriko Kultur Etxean.

Sasoi bateko pentsamentuari  
lotutako andren aldarriak

Hilaren 27an, 19:00etan, Kultur

## KONTZERTUAK

Arratiako taldeen  
kontzertuak antolatu ditue  
Areatzako Gaztetxeak

## Erredakzioa

Arratiako gaue izenpean eta bertako taldeei lekua emoteko asmoagaz, martiaren 29an, Areatzako Suger eta Galazota Arratiako taldeen kontzertuak egongo dira Laminetxe Gaztetxean 21:30etik aurrera. Ostean, Agata Lagata musika jartzaile billaroztarrak girotuko dau gaua.

Areatzako pop-rock taldea, Kattalin Burgoa (gitarra eta ahotsa) eta Leire Etxebarria (bajua eta ahotsa) zeanuriztarrek eta Leire

Etxean, *Emakumeak aberria eginez: Emakume Abertzale Batza 100 urte* (2023) liburuaren aurkezpena eta berbaldira egingo dabe Gurutze Ezkurdiak, Begoña Bilbaok eta Karmele Perez egileek.

Emakume Abertzale Batzaren pentsamentuaren oinarria, Sabino Aranaren JEL (Jaun Goikoa eta Lagi-Zarra) leloan zetzan eta euskal gizarte sinistun katolikoa eta Foruen aldarrikapenean egoan. Ondoren, "Euzkadi euzkotarren aberria da" leloagaz osotu zan aldarria. Euskadiren askatasun politikoa erdiestea, sinismen katolikoa indartzea, euskerea berreskuratzea eta "odolaren garbitasuna" zaintzea lortu gura eben. EABk andren prestakuntzeari garrantzia handia emon eutsan.

Idazleak, Karmele Perez Urria-



za, Gurutze Ezkurdi Arteaga eta Begoña Bilbao Bilbaok, UPV-EHUko irakasle-ikertzaileak dira, Pedagogian doktoreak eta adituak testu liburu eta euskal curriculumean. Hainbat andren biografiak eta historiak argitaratu ditue.

Antxinako pentsakerearen  
berreskuratze semantikoa

Hurrengo egunean, hilak 28, 19:00etan Kultur Etxean, Jon Mentxakatorre ikerlari galdakoztarrak, *Mito ipuinak: zelan aitu, zelan zaindu* berbaldira egingo dau. Mentxakatorre Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta UEUko Filosofia Saileko arduraduna da, eta mitoak be ikertu ditu. "Mitoek, aurreko belaunaldien hizkuntza eta irudimenaren esan-indar poetikoaren bidez, trazendentzia, jainkozkoa edo maitagarriaren eremua erakusten dabe, eta horrek gau-eguneroko munduagazko eukan, eta daukan, lotura estua" ikerlariaren esanetan.

Mitoak gizakiarentzat bezekoak dirala-ta, gaur egun horreek ze papel jokatzen daben eta zelan zaindu azalduko dau berbaldiran.



Disko bi ditue kalean, *Soroll* (2021) eta *El último trago* (2022).

Galazota taldea Aitor Yurrebaso arantzazuarrek, Oier Barreneitea eta Mikel Zarrabe igorretzarrak, Jon Pelaez dimoztarrak eta Mikel Egiluz galdakao-zeanuriztarrek osotuten dabe. 2020an hasi ziran alkartuten, 2021ean argitaratu eben *Etxera!* lehen kantua eta 2022an hasi ziran oholztetara igoten. Igaz, *Heldu orduko usteldu* diskoa kaleratu eben.



## LABURBIRA

### Igorren eta Diman be ikusgai egongo dira Laburbirako filmak

Laburbira euskeraz sortutako film laburren zirkuitua, Euskal Herriko 51 herritara helduko da aurten.


#### Erredakzioa

Areatzan martiaren 14an ikusi ahal izan ziran aurtengo 8 filmak eta bigarren hamabostaldi honetan beste aukera bi dagoz filmok ikusteko, hilaren 22an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan Udalak antolatuta eta hilaren 28an, 19:30ean, Diman, eskolako kameran, Udalak eta Abizariak antolatuta. Diman Utlandsk filmako Mercedes del Ama gidoilaria egongo da.

Ekain Martinez de Lizardu-yren *Prosopagnosia*, Sonia Estevezren *Plazer bat*, Eneko Sagardoyren *Betiko gaua*, Ekain Irigoienen *Europa*, Karmele Mitxelena, Alaia Martin eta Iraitz Mateoren *Pentsatzen dut*, Jone Arriolaren *Hor konpon*, Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yartoren *Goodbye Kepler* eta Alba Loza-

noren *Utlandsk* dira ikusi ahal izango diran filmak.

**Euskal zinea bultzatzea helburu** Taupa Euskaltzaleen Mugimenduen Laburbira euskerazko film laburren XXII. edizioa da aurtengoa. Euskal zinema "hauspotzea" eta euskal herritarrei euskerazko filmak ikusteko aukerea emotea dauka helburu. Aurten, Euskal Herriko 51 herritan proiektatuko dira 8 film labur horreek, publiko handi batera helduz.



## ANTZEZLANA


### Jon beldurgabea umeentzako antzezlan eskainiko dau Txalo Produksioak-ek Lemoako Kotxepin Kultur Etxean

#### Erredakzioa

Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, martiaren 29an, 18:00etan, Grimm anaien ipuinean oinarritutako *Jon beldurgabea* antzezlan ikusteko aukerea izango dabe 5 urtetik gorako umeek. Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Alfonso Diez eta Aitor Fernandino aktoreek umei barrea eragingo deutsee ikuskizun honegaz.

#### Sinopsia

Jon gazteak ez daki bildurra zer dan eta aitak aholku bat emon deutso: bizi dan etxea itxita, bildurraren bila abiatzea. Hasikeran, Jonek sorgin bategaz egingo dau topo, eta harek gaztelu sorgindu batera bisitan joatea gomendatuko deutso; bertan hiru egun emotea lortzean badau, gaztelua sorgin-eriaz libre geratuko da eta erregeak bere alabeagaz ezkontzen itxiko deutso. Holan, Jonek



maitagarriega dan mamu bateri, pirata ezpatari bateri eta kapadun banpiro bateri egingo deutse aurre. Gainera, saskibaloian jokatu dau burua galdu dauan gigante bategaz eta hiru buruko deabru baten hiru buruakaz eztabaidan egingo dau.

## IPUINAK

### Ipuin kontaketea Lemoan

#### Erredakzioa

Martiaren 26an, 18:30ean Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *Zaku bete ipuin* titulupean ipuin kontaketea egingo dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Sei urtetik gorako umeentzat dago gomendatuta eta sarrerak [www.lemoa.eus](http://www.lemoa.eus) webgunean erosi behar dira.

Ume eta helduentzako kontaketeak ditu Kortazarrek. "Berbak dira nire lanerako tresna eta horregaitik zaintzean dodaz tentuz. Ipuin tradizionalak, nik sortuak eta egile barrienak kontetan dodaz, helduentzat, haurrentzat eta nerabeentzat" dino bere webgunean. Eta *Zaku bete ipuin* kontakizuna holan aurkezten dau: "Zaku berria ipuin zaharrekin/Zaku zaharra ipuin berriekin/Ipuin bete zaku, zer daukagu?/Zaku bete ipuin, zuk bai jakin!".



## DUNBA

### Zeanuriko Inauteriak

#### Zeanuriko eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak

Zezeilaren 28an, barikuan, Zeanuriko eskolan Inauteriak ospatu genduzan, baina aurretiaz lan ugari egiten dogu egun hau guztiontzat pozgarria izan daiten.

Lehenik eta behin, maila bakoetako delegaduek gelan mozorrazteko proposatutako gai desbardinak delegaduen bileran aurkezten ditue. Ondoren gaien bozketea egiten da eta urte honetan gure eskolako gaia kirola izan da. Gela bakoetako kirol bat aukeratu ostean, berau prestatzeko ekintza eta eskulan ugari egiten doguz.

Eguna ailegau zan eta danok oso urduri eta pozik gengoan. Eskolatik urten eta kalejiran frontoira joan ginan eta gurasoak ikasleen antzerkiak eta jantzak ikustera etorri ziran.

HHko ikasleak eskiatzailez jantzi ziran eta primeran egin eben.

LH1ekoak gimnastaz jantzita *Bizitza zukutuz* kantuaren erritmora egin eben jantzan eta LH2koak hipika beganoa zer dan erakutsi euskuen. Hirugarren mailakoek surfistaz jantzita olatuak zeharkatu ebezan; 4. mailakoek barriz, igeriketa sinkronizaduko koreografia ederra egin eben.

LH5ekoak eurek sortutako futbol taldeko jokalariz joan ziran eta azkenik eskolako nagusienak saskibaloio jokalariz jantzita jantza bat prestatu eta antzerki bat egin eben.

Emonaldia bukatu eta gero plazara joan ginan DBHkoek altxorraren bila prestatu ebelako. Altxorra topatzea nahiko zaila izan zan arren topetea lortu genduan. Altxorra parte hartzaile guztiontzat izan zan, txutxe pakete bat!

Altxorra topau ondoren herriko mozorro desfilea hasi zan. Plaza jentez beteta egoan eta parte hartzaile ugari egon zan.

Oso ondo pasau genduan



eta gainera, 5 egun jai genduzala pentsatzeak poza emoten euskun!

Jai giro ederrean amaitu doguz aurtengo inauteriak eta espero dogu zeuek be ondo pasau izana!



# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

#### LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

#### LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

#### KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

#### SALTZEAN DODAZ

Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoira. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

### EMOTEN DOT

56 m<sup>2</sup> lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

### LANA

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamenez ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusan irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingeleseko klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezua begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

**begitu**

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Errigorak emondako produktuen otzara bana.

**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Adiorik ez antzezlanerako.

Naia Rodriguez (Igorre)  
Pili Barragan (Igorre)

Joseba Olibares (Zeanuri)  
David Ibarra (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)



**Ipini zure iragarkia Begitun**  
**649 979 115**  
**[inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)**





# BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

## 2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen duan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  40€  60€  80€

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

# ORTOMOBILITY

  Zure mugikortasuna hobetuz  
Bizkaiko esposizio handiena, zuek gertu!

- SALMENTEA ETA ESPOSIZINOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA



## ESKAILERA IGONGAILUAREN PROBEA LEMOAN

Datorren martiaren 22an, zapatua, 11:00etatik 13:00etara berbalditxo bat egingo dogu Lemoako Ortomobility dendan.

Bertan eskailera igongailu mota desbardinei buruz egingo dogu berba. Etxe partikularretarako eta komunitadeetarako baliagarria eta interesagarria izango da.

Eskailera igongailu bat probau ahal izango da zuzenean!

Ekitaldira etorri gura dauanak, izena emotea inportantea da. Martiaren 20a da apuntetako azken eguna 94 673 82 03 telefonoan.



[www.ortomobility.com](http://www.ortomobility.com)  
[info@ortomobility.com](mailto:info@ortomobility.com)  
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA  
94 673 82 03